



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa oharra

Batzar Nagusia Gernikan: “Ahaldun Nagusiaren Jendaurreko Adierazpena”

José Luis Bilbaok gastua egokitzeko neurriak aurkeztuko ditu Batzar Nagusietan abuztura arteko diru-bilketea %3,1 jeitsi dala iragarri ondoren

Bizkaiko Ahaldun Nagusiak, José Luis Bilbao jaunak, Jendaurreko Adierazpena egin dau gaur Gernikako Batzarretxean. Hitzaldian zehar Aldundiaren arduradun gorenak agintaldiko lehenengo urtean egindakoaren gainbegiradea eta balatzea egin dau, baita datorren urtekitaldirako hausnaketea eta analisisa be. Gai nagusiei jagokenez, Bilbao jaunak esan dau, besteak beste, zenbait “neurri aurkeztuko dituala Batzar Nagusietan 2012. urtekitaldiko aurrekontua diru-sarrereren benetako egoerara egokitzeko”, diru-bilketea %3,1ean gitxitu dalako abuztura arte, berak emondako datuen arabera. “Behar izan daitezkan neurriak hartuko ditugu aurrekontuaren errealitatea gure diru-sarrereren benetako egoerara egokitzeko, defizit gehiago eragin barik” esan dau. Ahaldun Nagusiak zergen aldaketea iragarri dau, PFEZn eta Sozietateen Zergan aldaketak sartuta eta iruzurraren aurkako neurriei buruzko Foru-Arau Proiektua aurkeztuta.

Era berean, Ahaldun Nagusiak iragarri dau zergen aldaketarako proposamena aurkeztuko dauela, aldaketak egiteko PFEZn eta Sozietateen Zergan, beste batzuen artean, eta iruzurraren aurkako neurriei buruzko Foru-Arau Proiektua aurrera atarateko. “Iruzurgilearen atzetik ibiliko gara, azpijokoan dabilenari eta solidarioa ez danari jazarpena egingo deusagu, Bizkaian ez daiten egon alokairurik faktura barik, ez daiten egon BEZ bako fakturarik eta ez daiten errudunik geratu zigor barik”.

Beste alde batetik, Bilbao jaunak hurbileko etorkizunaren aldeko apostua egin dau politika orokorreko Batzar Nagusian eta “eskua luzatu” deutse gainontzeko Batzarkide-Taldee adostasuna lortzeko 2013. urteko aurrekontuei begira, bere ustez “errealistak, zuhurtziazkoak eta doituak” izan behar dabe-ta. Horrezaz ganera, Talde guztiei proposatu deutse akordioa Diputatuen Kongresuan aldezteko Kupoaren Lege barria eta oraindik kitatu barik dagozan azken 5 urteotako kupoaren likidazinoak, horri buruzko eztabaidea 500 milioi inguruko zenbatekoaren ingurukoa da-ta une honetan.

LORPENAK

Jarduera-lerroen errepassoa egin aurretik, agintaldiko lehenengo urtean egindakoen errepassoa egin dau José Luis Bilbaok. Azaldu ditu zeintzuk izan diran bere gobernuaren kudeaketearen “munarriak”, eta aitatu ditu Euskalduna Jauregiaren handitze-lanak, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen inaugurazioa (martxan jarri zanetik 4 milioi



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

erabiltzaile baino gehiago izan dituana), Zornotzako AIC-Automotibe Intelligence Center dalakoaren handitze-lanak, edota Euskal Unibertsitate Publikoagazko lankidetzan, inbertsinoak alkarregaz egin dira-ta San Mamesen, Leioan edo Plentzian.

Ahaldun Nagusiak beste lorpen batzuk be aitatu ditu, esaterako Deustuko Unibertsitateagaz lortutako akordioa Bizkailab sortzeko, hiru errepide-ardaten proiektuak hasi izana (Gerediaga, Autzagane eta Bermeo), udalek Udalkutxari itzuli behar deusien dirua itzultzeko epea hiru urtekoa izatea eta “ez bat bakarrik, beste lurralde bietan egin daben lez” eta udalen zorpetze-muga igotea “euren hornitzaileei ordaintzeko modua izan dagien”. Era beran, turismoak Bizkaian eskaini dituan datuak aitatu ditu eta horreetan kopuruotan Guggenheim Museoak daukan eragin handia. Izan be, uda honetan, 291.000 bisitaritik gora izan ditu, Bizkai osoko turistaren kopuruan izan dauen eraginagaz, non 2012. urteko lehen sehilabetekoan milioi erdi turistatik gora izan diran.

Munarrien gainbegirada horretan, Ahaldun Nagusi jaunak autortza garrantzitsu bi egin ditu: bata Bizkaiko Foru Aldundiak Estatu guztiko administrazinorik gardenena izateagaitik jaso dauena eta, bestea, guda zibilean bonbaketen biktima zibilei egindakoa.

KRISIA: EKONOMIA ETA ENPLEGUA

Bere hitzaldiaren lerroetan, Bilbao jaunak Bizkaiak gaur egun dauen inguruabar ekonomikoaren azterketea egin dau. Lorpenak aitatu eta gero, hitzaldiaren zati handi bat emon dau Bizkaiko ekonomiak dituan zailtasunak aitutzen. Bizkaiko ekonomiak 2012. urtean dauen bilkaerea, bere hitzetan, “negatiboa izaten ari da, eta jatorrizko aurreikuspenetatik urrundutakoa”. EUSTATen datuak emon ditu euskarriztat. Erakunde horren arabera, BPGaren %1,7ko hazkundetik %0,7ko beherakadara joan gara.

Une horretatik aurrera, inori leporatzeko gauzak aitutzen hasi da. Bilbao jaunak azaleratu egin dau “porrot historikoa” izan dirala gobernu zentralen politika ekonomikoak, baita autonomia erkidegorik eta toki erakunderik gehienenak be. Ildo horretatik, adibidetzat aitatu dau zelango porrota izan diran kredituetan oinarritutako hazkundeak bultzatzea, “bankuen sistemak berak hori bultzatuta”; neurriak hartu behar ziranean hartu ez izana eta kutxen bankutze prozesu zapuztua. Ildo horretatik be, salatu egin dau “Aureski Kutxen sistemearen kudeaketan gertatutako desastrea, porrot negargarira eroan ditu-eta”. “Benetan arduratzeko modukoa da horren guztiorren erantzuleak poltsiloak beterik urten izana, ezetariko erantzukizuni aurre egin barik”. Sindikatuentzako mezu bat be igorri dau, esanez ekonomi egoera honetan “egin ezin dana dala sei hilabeterik sei hilabete greba orokorrerako deia egitea.”

Familia bizkaitarrek paraitu behar daben langabeziak be Ahaldun Nagusiaren hitzaldiaren zati handia hartu dau. “Krisiaren ondoren txarrena eta negargarriena da, eta gure ardurarik handiena be.” Horretara, konpromisoa hartu dau politika publikoak bultzatzen jarraitzeko, ekonomi jardueria suspertzeko eta, horretara jokatuta, enplegua



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

sortzeko. Proposamena mahairatu dau Bikaian eta Euskadin Enplegua Sortzeko Erakundeen arteko Plana atontzeko, guztien artean bultzatu beharrekoa, udalek, Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak parte hartuta horretan, izan be “administrazioen behineneko zeregina enplegua sortzearena izan behar dalako”.

ZERGEN ALDAKETEAK ETA ZERGA IRUZURRAREN AURKAKO BURRUKA

Ahaldun Nagusiak iragarri dau zerga aldaketarako proposamena plazaratuko dauela eta zergaren aurkako neurrien Foru Araua. “Iruzurgilearen atzetik ibiliko gara, azpijokoan dabilenari eta solidarioa ez danari jazarpena egingo deusagu, Bizkaian ez daiten egon alokairurik faktura barik, ez daiten egon BEZ bako fakturarik eta ez daiten errudunik geratu zigor barik”.

Ukatu egin dau Aldundia geldo egon izana, batzuk hori egotzi deusie-ta. Hori ezeztatzeko, adierazo dau 10 Foru Arau eta 20 Foru Dekretu onartu dirala zergen neurrien inguruan. Ahaldun Nagusi jaunak berretsi egin dau foru gobernua arlo horretan lanean diharduala, eta lerro nagusiak aurkeztu ditu PFEZn eta Sozietateen Zergan egin gura diran eraldaketen inguruan. Hitzaldia horretan egoala, Bilbao jaunak iragarri dau zerga iruzurraren aurkako burrukearen ganeko Foru-Arau Proiektua aurkeztuko dala, baita 8 zerga-ikuskatzaile eta 10 azpikuskatzaile barri kontratatuko dirala.

ALKARTASUNA

Gizarte zerbitzuen inguruko mezu argia be bota dau Ahaldun Nagusiak: Aldundiak “ahaleginak eta bost egingo ditu zerbitzuen maileari eusteko, mendekotasundunenganako arreta bereziagaz”. Argi itxi dau “ez dabelaza gauzatuko PPren Gobernuak bultzatutako murrizketak” eta lankidetzak eskatu deutse enparauko Taldeei eta Eusko Jaurlaritzari “hondino burutu barik dagoan akordia beteteko” gizarte zerbitzuen finantziaketearen ereduari jagokonean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Nota de prensa

Pleno en Gernika: “Declaración Pública del Diputado General”

José Luis Bilbao presentará en las Juntas Generales medidas de adecuación del gasto tras anunciar una caída del 3,1% en la recaudación hasta agosto

- El Diputado General ha anunciado una reforma fiscal, con cambios en impuestos como el IRPF y Sociedades, y un proyecto de Norma Foral de medidas anti-fraude

El Diputado General de Bizkaia, José Luis Bilbao, ha comparecido hoy en la Casa de Juntas de Gernika, para dar lectura a la denominada “Declaración Pública del Diputado General de Bizkaia”. En la misma, el máximo responsable foral ha realizado un repaso y un balance de este primer año de legislatura con reflexiones y análisis para el próximo ejercicio. Entre otros grandes temas, Bilbao se ha comprometido a presentar en las Juntas Generales un conjunto de “medidas para adecuar el actual presupuesto de 2012 a la realidad de los ingresos”, ya que la recaudación hasta agosto decreció un 3,1%, según datos aportados por él. “Adoptaremos las medidas necesarias para adecuar la ejecución presupuestaria a la realidad de nuestros ingresos, sin generar nuevos déficits” ha declarado.

Al mismo tiempo, el Diputado General ha anunciado que presentará una propuesta de reforma fiscal, con cambios en los impuestos de IRPF y Sociedades, entre otros, y un Proyecto de Norma Foral de medidas anti-fraude. “Vamos a perseguir al defraudador, al embaucador y al insolitario, para que no exista en Bizkaia ningún alquiler sin factura, ninguna factura sin IVA y ningún culpable sin castigo”.

Asimismo, Bilbao ha apostado en este pleno de política general, de cara al futuro próximo, por “tender la mano sin limitaciones” al resto de grupos junteros, para buscar el acuerdo a unos presupuestos para el año 2013 que entiende deben de ser “realistas, austeros y ajustados”. Además, en su Declaración Pública ha propuesto a todos los grupos un acuerdo para defender en el Congreso de los Diputados una nueva Ley de Cupo y una liquidación de los cupos provisionales pendientes de los últimos 5 años, cuya cuantía en discusión supera los 500 millones de euros.

LOGROS

Antes de repasar estas líneas de actuación, José Luis Bilbao ha hecho un resumen de la gestión de la Diputación en este primer año de legislatura, y ha explicado los grandes



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“hitos” de gestión de su gobierno, en los que ha citado las obras de ampliación del Palacio Euskalduna, la puesta en marcha de la Variante Sur Metropolitana (con más de 4 millones de usuarios desde que se puso en marcha), la ampliación del AIC-Centro de Inteligencia de Automoción de Amorebieta, o el apoyo a la Universidad Pública Vasca con inversiones conjuntas en San Mames, Leioa o Plentzia.

Entre estos logros, el Diputado General ha citado también el acuerdo con la Universidad de Deusto para la creación de Bizkailab, el inicio de tres proyectos de carreteras radiales (Gerediaga, Autzagane y Bermeo), la devolución a Udalkutza del dinero que deben devolver los ayuntamientos en los próximos tres años y “no en uno sólo como se ha impuesto en los otros dos territorios” ha advertido, y elevar el límite de endeudamiento de los ayuntamientos “para que puedan pagar a sus proveedores”. Asimismo, ha destacado los buenos datos del turismo en Bizkaia y, especialmente, la gran aportación que realiza en estas cifras el Museo Guggenheim que ha superado las 291.000 visitas en verano, lo que ha impulsado los datos turísticos de Bizkaia al sobrepasar el medio millón de turistas en el primer semestre de 2012.

En este repaso de los hitos, el Diputado General se ha parado en dos reconocimientos importantes: el reconocimiento de la Diputación Foral de Bizkaia como la más transparente de todo el Estado y un reconocimiento a las víctimas de los bombardeos sobre la población civil durante la guerra.

LA CRISIS. ECONOMÍA Y EMPLEO

En su guión, José Luis Bilbao ha hecho un análisis del contexto económico actual en Bizkaia. Después de citar los logros, ha dedicado buena parte de su tiempo para recordar las dificultades por las que atraviesa la economía vizcaína. La evolución de la economía vizcaína en 2012 está siendo “negativa y se aleja notablemente de las previsiones iniciales”. Ha ofrecido datos del EUSTAT para apoyarse en este hecho. Según este organismo, se ha pasado de un crecimiento del PIB del 1,7% a un decrecimiento del 0,7%.

En ese momento, ha comenzado el tiempo para los reproches. Bilbao ha denunciado la “constatación del fracaso histórico” que han supuesto las políticas económicas de los gobiernos centrales, así como el de la mayoría de las Comunidades Autónomas y entes locales. Ha citado como ejemplos el impulso fallido de apostar por un crecimiento a base de crédito “alentado por el propio sistema bancario”, la no adopción de medidas a tiempo y el fallido proceso de bancarización de las cajas. En este asunto, ha denunciado el “desastre en la gestión del sistema de Cajas de Ahorros que las ha llevado a una estrepitosa quiebra”. “Lo realmente preocupante es que los responsables de todo esto salgan con los bolsillos llenos y sin asumir ningún tipo de responsabilidad” ha lamentado. También ha guardado un mensaje para los sindicatos. En esta situación económica lo que “no se puede hacer es convocar una huelga general cada seis meses”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El desempleo que afecta a las familias vizcaínas ha tenido un espacio destacado en el discurso del diputado. “Es la consecuencia más preocupante y dramática de esta crisis y constituye nuestra principal preocupación” ha dicho. Por ello, se ha comprometido a seguir promoviendo políticas públicas que favorezcan la generación de actividad económica para poder así incentivar la creación de empleo. Ha lanzado una propuesta para abordar un Plan Interinstitucional para la Creación de Empleo en Bizkaia y en Euskadi entre todos, citando a Ayuntamientos, Diputaciones y Gobierno vasco, porque “la creación de empleo debe ser el cometido prioritario de las administraciones” ha dicho.

REFORMAS FISCALES Y LUCHA CONTRA EL FRAUDE FISCAL

El Diputado General ha anunciado que presentará una propuesta de reforma fiscal y un Proyecto de Norma Foral de medidas anti-fraude. “Vamos a perseguir al defraudador, al embaucador y al insolitario, para que no exista en Bizkaia ningún alquiler sin factura, ninguna factura sin IVA y ningún culpable sin castigo”.

Ha negado a quienes tachan a la Diputación de inmovilista y ha aportado para ello la constatación de que se han aprobado 10 normas forales y 20 decretos forales en los últimos 3 años en medidas tributarias. El Diputado ha insistido en que el Gobierno foral sigue trabajando en esta materia y ha presentado las líneas maestras para la revisión de los impuestos del IRPF y Sociedades. En esta parte de su intervención, Bilbao ha anunciado un proyecto de Norma foral de lucha contra el fraude fiscal y la contratación de 8 nuevos inspectores y 10 subinspectores.

SOLIDARIDAD

El Diputado General ha lanzado también un mensaje claro a los vizcaínos en materia de servicios sociales. La Diputación “va a hacer todos los esfuerzos por mantener el nivel de los servicios, con especial atención a las personas dependientes”. Ha dejado claro en que “no van a aplicar las medidas de recorte del Gobierno del PP” y ha aprovechado su intervención para pedir la colaboración con el resto de grupos y con el Gobierno Vasco para “cerrar el acuerdo pendiente” en el modelo de financiación de los servicios sociales.